

## **Zer aisialdi eredu eraiki nahi dugu? Nola islatu beharko litzateke Kilometroak jaian?**

Aisialdia astialdiaren programaziotik sortzen da. Programazioa aipatzen den unetik xedeak, helburuak, etapak, ... zehazten dira, hau da, hezkuntzan erabili ohi den metodologia. Aisialdia maiz zerbitzu gisa hartzen da eta jendeari bere hautua izateko aukera emanaz, pertsona bere astialdia libreki programatzeko utzi nahi da.

Alta, nahi eta nahi ez, onartu behar da aisialdirako ere “curriculum ezkutua” indarrean dagoela eta astialdia denbora aske dela pentsatzen dugun bitartean, denbora horretaz egiten dugun erabilera oso gidatua da.

Zein da Ikastolok eskaintzen dugun aisialdi eredu? Seguruenik inor inoiz ez du tarte bat hartu galdera honi erantzuteko. Eskola Kirola, etxeko lanak, ... dira, besteak beste guztion ahotan darabilten eta aisialdiarekin erlazionatuta dauden gaiak. Eta benetan aisialdiaren inguruan gure kezka pizten da inkesta soziolinguistikoen emaitzak irakurtzen ditugunean; euskararen erabilera oso baxua dela azpimarratzen denean alegia.

Kilometroak jaia Ikastolok diseinatu beharko genukeen aisialdi eredu baten isla izan beharko litzateke. Saia gaitezen kontzeptu orokorrak zehazten.

Zaila egin zaigu galdera hauen inguruan hitz egitea; izan ere, iruditzen zaigu gizartearen kontrako noranzkoan joan beharra dagoela gure aisialdi propioa eraiki nahi badugu. Egun daukagun aisialdi mota, eskaintzen zaiguna (eta ondorioz, guk aukeratua) ez dator bat gustatuko litzazigukeen aisialdiarekin.

Lehenengo eta behin, zer aisialdi daukagun behatu dugu. Egun eskaintzen zaigun aisialdia, gure denbora libre “betetzeko” eskaintza ezberdinetan oinarritzen da: kirol eskaintzetan (baita asteburuetan ere), etxeko lanetan, ingeleseko akademietan, musika eskoletan, etab. Txikitatik hasi eta gazte garenera arte, baina betiere zerbait egiten, zerbait egitea/emaitza/produktua bilatuz betiere: irabaztea, emaitza batzuk izatea, etorkizun hobe bat izatea.

Aztertu dugun beste faktoretako bat familia / gizarte ereduak izan da: egia da familia ereduak aldatu egin dela, eta gurasoak (gehienetan biak) lan egitean umeak eskolatik atera eta entretenituta mantendu nahi dituzte- sarri, beraiek ere entretenitzeko denbora izan dezaten. Atera den beste ideia bat honakoa izan da, hain zuzen ere: aisialdia askotan familian elkarbanatzen dela, badirudi seme alaben aisialdian gurasoek ere parte hartu beharra daukatela. Aldi berean, komunitatean aisialdia disfrutatzeke joera galdu da, bakoitzak bere aisialdiari begiratzen dio eta ingurukoek egin dezatela nahi dutena, hautua libre da.

Gazte gareneko sasoiak baztertuta dagoen ideia ere atera da. Gaur egun hainbeste debeku, arau eta beldur sartu dizkigute askotan oraindik legearen aurrean babesteagatik ere gazteak alboratu egiten ditugun: parte hartzeko aukera izateak ez al du zerbaitetarako interesa pizten, eta arrisku jakin batzuk baztertzen? **Lekua behar dute gazteek**, eta iruditzen zaigu egungo ereduak ez daukatela, beraz, jaia eskaintzen diegu: ondo pasa **baina pasatu gabe**. Eta ondoren Kilometroak-etan beldurra guk izaten dugu.

Beraz, argi dago aisialdi eredu berri bat eraiki nahi badugu gizarte aldaketa baten premia dagoela, edota gizartearen kontrako norabidea hartu beharra dagoela.

**II. WORLD COFFEE. 2017 - OÑATI**  
**KILOMETROAK: jai eredu berri bat asmatzera goaz!**

Balore jakin batzuen transmisioan oinarritutako aisialdia izan behar dugula ere uste dugu, eta horrekiko konpromisoa bermatu beharra dagoela: Euskal Herrian bada zer landu.

Etorkizuneko KMK irudikatzeko garaian, hau nolakoa izan beharko lukeen parte hartze prozesu honetan ikasleek, herritarrek ere parte hartu beharko luketela iruditzen zaigu. Harreman berrien falta sumatzen dugu, gu geu ari gara hein batean “arrotza” egiten zaigun gaia lantzen- gazteen kasua. Inplikazio falta sumatzen da, kanpotik dena eginda etortzen zaigu, baita helduei ere.

**Askatasuna** beharrezkoa da, sormenak lekua behar du: gure aisialdian baita Kilometroetan. Egun jaia eginda datorkigu. Aurreko urteko Haurren Hiria bezalako ekimenak jaiari buelta bat emateko balio dutela uste dugu eta gazteen kasuan ere berdina egin beharko litzatekeela.

Kilometroak jaiari isla:

Kilometroak jaia izan behar da ikasturtean zehar Ikastolen lantzen diren baloreen isla.

**Ukaezina da antolaketa apurketa batek antolaketa berria eskatzen duela eta uste dugu egunerako antolaketa berri honetan dirua ezin dela protagonista bakarra izan: ezin da faktore/eragile bat izan.**

**AISIALDI “BERRIAK” ESKATZEN DUENA:**

- Sormenerako/ kezkontzako espazioak. (Gazteak)
- EHko baloreetan oinarritutako aisialdia nahi dugu.
- Hezkuntzaz gain familietako/gizarteko inplikazioa beharrezkoa da.

**Kilometroetan nola islatu:**

-ERRONKARI eutsi behar diogula uste da. Hala ere, gazteek bakarrik ez, beste jende batek ere jaiari parte hartzeko espazioen falta sumatu da. (Eskaintzaren ideia).

-Parte hartzea sustatzea ezinbestekoa da: lehen KMK jaia hartzean poz handia sumatzen zen bezala, egun ZAMA gisa ikusten dugu.

Jaia eginda dator, “Nola ez dakigu, baina atera, aterako da” entzuten dugu. Kilometroak antolatzen duen Ikastolan zein nolako autonomia du? Urtean zehar bestelako lanketa bat egitea eta eguna itxuraldatzearen ideia atera da.

**Aisialdiaren antolaketa ezaugarriak: auzolana, prokomuna,...**  
**Kilometroak jaiaren kapital soziala.**

Ikastolen Mugimenduak ezin du bere izaera kolektiboa galdu. Izaera kolektibo horretatik, gaur egun oraindik ere, Ikastolen aldeko jai auzolanean lantzen da. Auzolana antolaketa sozial mota bat da non ezaugarri garrantzitsuena jendearen arteko harremanetarako horizontaltasuna den.

Horizontaltasuna horretan pertsonak, taldeak, elkarteak, eragileak, alderdiak, erakundeak, instituzioak, ... oso maila ezberdinean aritzen diren subjektu sozialak daude, eta proiektu bateratu baten inguruan elkarrekin lan egiteko engaiamendua lortzen da. Horri deitzen diogu jite prokomuna.

Ikastolen aldeko jaiak guztiz barneratuta dute funtzionamendu eta jite hori, eta ezaugarri hau "harri bitxia" balitz babestu behar da; izan ere, dinamika hau historian zehar Ikastolen Mugimenduak sortu badu ere, dagoeneko bere patrimoniotik atera eta benetako "kapital soziala" bilakatu da. Zoritxarrez, jendartean badira dinamika honen aurka traba egiten duten ezaugarri asko eta, hauek identifikatu ondoren, era kontziente batean lantzen eta aberasten jarraitu behar da gure izaera propioa.

Nola babestu eta sakondu jarrera prokomuna gure Kilometroak jaietan?

Kilometroak jaiaren kapital sozialaz aritu garen txokoan, kasu guztietan, goiko karratuko testua irakurri da gaia kokatze aldera eta, ondotik, eman da partaideen arteko solasa. Edozein moduz iritzi trukaketa zinez aberasgarria izan da.

Kilometroak jaiak bere baitan duen funtzionamendua, auzolanean oinarritua dena balio handiko baloretzat dugula esan daiteke, aldiz, krisian dagoela ondorioztatu daiteke izan diren hitzartzei erreparatuz. Orokorki ikastolon izaera kolektiboa oso baliotsutzat dugu baina, era berean, oso higatua edo ahuldua sumatzen dugu. Egun Euskal herrian bizi dugun aisialdi ereduak (nagusiki indibidualista, kontsumista ... ) ez du laguntzen, aitzitik, asko zailtzen du gure izaera prokomuna edo parte hartzailea. Kilometroak antolatzean darabilgun jai ereduak ere askorik ez duela lantzen jite prokomun hori ondorioztatu daiteke esan direnei erreparatuz gero. Halere, baikortasunerako tarterik ere bada: esan baita, jendeak bere baitan duela laguntzeko eta elkartasunez jarduteko grina edo sentimendua. Testuinguruak erabat eragin eta baldintzatzen duela norbanakoaren sentimendu kolektiboa, baina oraindik ere azaleratzen da eta, krisian bada ere, egoki landuz gero zabalduko dela, existitu existitzen baita, hor baitago.

Esan daiteke, gure jaietan auzolanaren oinarria zertan den aztertzen jardun dugula eta argi ikusi dela dirauen arren, krisian dagoela. Jabetu gara ezin dela berezitu jai ikastolengandik. Hau da jite prokomun hori gure jaietan ongi egongo da ikastolengan ere ongi badago. Ikastolon esentzian dago parte hartzea, auzolana, komunitate izaera baina landu, jorratu eta babestu behar da egungo testuinguru zaila baita halako balore baterako.

Segidan daude lan taldean azaleratu diren ideia nagusiak:

- Ikastolengan ez bada lantzen izaera kolektibo hori den "harribitxia", Kilometroak jaietan nekez islatuko da.
- Ikastolon artean aldea dago. Batzuetan ongi, besteetan erdi-ipurdi eta beste batzuetan apenas den esentzian suposatzen zaigun balio horren lanketarik.

**II. WORLD COFFEE. 2017 - OÑATI**  
**KILOMETROAK: jai eredu berri bat asmatzera goaz!**

- Ikastolok talde izaera indartu behar dugu. Jaia Ikastola bati esleitzean besteak nolabait ahaztu egiten gara. Kilometroak jaiaren bidez Gipuzkoako ikastola taldearen parte hartzea sustatu behar da. Ia ekitaldi guztien antolaketa oso “lokalista” izan ohi da.
- Akaso jaiaren helburu, xedeetan egon behar du talde izaeraren zaintza, mimatzea, sustatzea eta gauzatzea.
- Ikasle ohiak mugimendura atxikirik mantentzeko ahalegina egin behar da. Etena sortzen baita 18 urte – 28 urte bitarteko epealdian. Gerora asko guraso bezala itzultzen badira ere ikastolara (tartean ere betiko joan eta ikastolara itzuliko ez direnak badira), eten hori ahalik eta txikiena izan dadin lanketa egin beharra dago. Jaiak parada egokia eskaintzen du horretarako.
- Ikastolaren “curriculumean”, zereginetan, ordu zenbait eskaini behar litzaioke balore hau lantzeari, auzolanari.
- Egun Euskal Herrian bizi dugun aisialdi ereduak, orokorrean ez du bat egiten ikastolen izaera kolektiboarekin eta normalki kaltegarria zaio izaera horri. Kontsumoak, indibidualismoak pisu handiegia du aisialdian eta hortik nabarmen arazoa, traba, injerentzia datorkio gure izaerari.
- Ikastolan aisialdirako ere hezi behar dugu.
- “Marroia”. Kilometroak jaiaren boluntario aritzea “marroia” bezala ikusia dago. Egungo gizartean bizi den aisialdi motak horretan zerikusi handia du. Izugarri baldintzatzen du gure bezalako mugimendua eta gure kapital sozialean eragiten du.
- Aisialdia gure gizartean modu indibidualean bizi da nagusiki.
- Kanpotik den “bonbardeoak” komunitate baten zati izatearen sentsazioa ahultzen digu, zailtzen digu, ia galarazten digu sentsazio hori izan eta bizitzea.
- Gizartean aisialdia nola montatua dagon ikusita “kontsumitzaile” hutsak gara. Naiz eta gizartean ere zenbait harribitxi topa daitezkeen, joera nagusia zoritxarrez ez da hau.
- Kilometroak aisialdiaren transmisiorako tresna bikaina izan daiteke.
- Komunitate zentzua eta lurralde ikuspegia indartu behar dira.
- Kapital izugarria dago. Aktibatu behar da.
- Haurrekin lantzen hasi behar da aisialdi eredu egokiago bat gure izaerarekin bat datorrena. Orduak, denbora eman behar zaio horri ikastoletan.
- Oso dugu barneratua ikuspegi merkantilista eta ez dugu baloratzen gure “harribitxia” auzolana. Haurretan zentratu eta guneak sortu behar dira auzolana ezagutu dezaten bizi dezaten. Balioztatu behar dugu hori.
- Gizarteko aisialdi eredu eta ikastolon izaeraren arteko talka dago.
- Ekonomiak egun gure jaiaren duen pisua arindu behar da. Ekonomiak baino beste zenbait zioek indar gehiago behar lukete Kilometroaken.
- Egungo auzolana gure jaiaren: borondatezkoa eta “borondate behartuzkoa” izaten da. Bietatik dago. Askotan gelaka antolatzen dira eta “derrigorrezkoa” izan ohi da. Jaiaren antolaketan parte hartzeko bi modu horiek bereizi dira. Derrigortze horrek auzolana ez ote duen kaltetzen galdetu da. Borondatezkoa auzolana, sentimental, bizitzen dena batetik eta nolabait esateko behartua edo... bereizi dira. Landu beharko litzatekeela behartu gabekoa esan da, horretarako guraso berriekin lanketa egin behar dela.
- Egungo gizartea ez da ikastolen sorreran izan zen hura eta gizartearen bilakaerak, aldaketak asko eragiten du ikastolaren esentzia horretan.
- Egungo ereduak “esku-lan merke” gisa erabili direla boluntarioak ere esan da.
- Giza taldea zaintzea oinarritzkoa da.
- ...

## **Aisialdia eta digitalizazioa, gaur egun bateragarria? **Kilometroak 2.0** zertarako?**

Onartu behar dugu aisialdia marka komertzialentzat “lur emankorra” dela eta azken hamarkada honetan aisialdian gehien sartu den esparrua informatikoa izan dela. Oso ohizkoa da entzutea: “modernoak diren gauza guztiek badute beren alde ona eta beren alde txarra”, eta egia borobila dela ukaezina da. Zoritxarrez “alde onek” normalean ez dute eragiteko “alde txarrek” duten indarra, eta moderno kontzeptuari besterik gabe beti zentzu positiboa ematen diogulako, gure guardia jaitsiz, azkenean “alde txarrak” ikuspuntu kritikorik gabe onartzen ditugu.

Ezin dugu jarraitu multinazional boteretsu horiek gure gazteen zein gure burmuina kolonizatzen uzten. Konturatzen bagara, informatikako tirania batean bizi gara zeinen arabera, dagoeneko, jende asko bazterketa soziala pairatzen ari den.

Gure aisialdiaren kontrola berreskuratu behar dugu eta horretarako, inoiz baino garrantzitsua da esparru informatikoarekiko azterketa eta irakurketa kritikoa lantzea. Kilometroak ezin al da izan agresio telematikoaren aurkako egun bat?

### **Iritziak:**

Jaiaren helburua zehaztu eta digitalizazioak bertan zein leku izan behar duen zehaztu beharra dago.

Gazteak helduak baino “digitalagoak” dira eta jaietan beraien parte hartzea bermatu nahi bada, tresna hauek erabili egin behar dira.

Agian digitalizazioaren alderdi positiboekin zerbait bideratu beharko litzateke, bestela jaiak egungo “errealitate” at geratuko baitira

Jai eredu zehazten ari garen honetan, digitalizazioa tresna, bidea edo helburua, emaitza den zehaztu behar da. Egun emaitza, helburua dela ematen du duen eraginari erreparatzen badiogu.

Teknologia eta Kilometroak: denboran hurbileko esperientzia bat: Kilometroak egunean bertan, Erreal-Athletic derbya tokatu zen eta antolatzaileen arteko eztabaida izan zen, ea egunean bertan pantaila handiak jartzea merezi zuen jendea erakartzeko. Azkenean pantailak jarri eta “azierto” bat izan zen, jendea etortzea lortu baitzen. Jendeak bietan egoteko aukera izan zuen, bai Kilometroaken eta baita partidua ikusten ere. “Puruak” ezin dugu izan, bestela gazteak ez baitira etorriko. Partidua gainera ekintza kulturala da eta beraz, partaideek bi ekintza kultural bizitzeko aukera izan zuten.

Partidua ikusten egon zirenak, partidua ikusten zuten bitartean jai bertan ote zeuden? Egunaz gozatzen ote zeuden? Eta partiduan? Edo pantaila lauki bati begira zeuden beste guztiaz ohartu gabe?

Jai egunean bertan behintzat, digitalizazioarekin lotura daukan ezer ez litzateke bideratu beharko. Egitekotan ikasturtean zehar. **Eta hori bai, garrantzitsuena, estamentu desberdinen arteko lanketa kritiko bat bideratu beharra dago digitalizazioa zertarako, nola, zergaitik...lantzeko. Bertan, gazteen parte hartze askea bideratu beharra dago, protagonista sentitu behar dute.**

Digitalizazioa jendartean dagoen errealitate bat da eta ezin dugu errealitate horretatik kanpo bizi. Baina nork sortu eta bideratua da errealitate hori? Guk sortu ote dugu edo kapitalismoak sortu eta bideratua da. **Ezin dugu errealitate kanpo bizi eta beraz, errealitate horren irakurketa, lanketa kritiko bat egin behar dugu estamentu guztien parte hartzeekin eta behin lanketa kritiko hori eginda, digitalizazioaren aurrean gure jarrera eta proposamena eraiki. Prozesu honetan gazteen parte hartze askea ezinbestekoa da.**

Digitalizazioaren alde on bat komunikazioarena da. Esaterako munduan zehar sakabanaturik diren familien harremana errazten du.

**II. WORLD COFFEE. 2017 - OÑATI**  
**KILOMETROAK: jai eredu berri bat asmatzera goaz!**

Egun ez ote gara gehiago komunikatzen munduan han eta hemen dagoen jendearekin, aurrez-aurre egunero topatzen garenekin baino? Ez ote dugu han eta hemengo informazio gehiago jasotzen hurbileko informazioa baino?

Garrantzitsuena aurrez aurreko harremana da, komunikazioa, eta digitala osagarritzat erabili beharra dago.

Teknologia berriak erabili arren, gazteen artean oraindik aurrez-aurrekoak pisu handia duela uste duenik bada.

**Teknologia berriak galarazteak ez du ezertarako balio. Erramienta bat da. Zertarako erabili nahi den landu behar da modu kritiko batean eta behin landuta horretarako erabili.** Alkoholarekin ere berdina, guk edan eta gazteei galarazi? Ez, lanketa bideratu eta erabilera zehaztu eta horretan hezi.

Gehienen ustez, aurrez-aurreko harremana galtzen ari da bide honetan. Gazteak eta baita umeak ere, pantailari begira geroz eta denbora gehiago pasatzen omen dute. Gazteek pantaila bidezko harreman pobreak sarriago omen dituzte lehengo aldean.

Gure herrietan, gure gizartean arazoak sortu omen dira, sare bidezko harreman gaizto dezente ematen ari baitira.

Tresna hauek, aurrez-aurreko harremanetik urruntzen gaituztenez, bestea aurrez-aurre sentitzen ez dugunez, elkarri ikaragarritzko mina emateko aukera errazten dute eta horrelako egoerak ugaritzen ari ei dira.

Lanketa positiborik ere bada gure artean, ikastolan, bai eremu formalean eta baita eremu ez-formalean ere, teknologia berrien inguruko lanketak bideratzen ari dira eta horrek Batxilergoan tresna hauen erabilera egokia izatea ekarri du.

Gazteen artean "Pitzadura digitala" deiturikoa ere orduan eta gehiago ematen ari da, hau da, sare sozialetik kanpo geratzearena, baztertuta uztearena.

**Arazoa ez da digitalizazioa, jendartearen zabaltzen ari den konpetibitatea, indibidualismoa... baizik eta argi dago, teknologia berriek horretan laguntzen dutela, arazoa handitzen, areagotzen dutela.**

Digitalizazioak ikastolen arteko harremana saretzen lagundu dezake, harreman nazionala osatzea erraztu dezake.

**Baina, harreman digitala bideratu aurretik, Jaiek eta EHik berak ez ote lukete lehenengo ikastolen, ikastoletako estamentu desberdinen arteko aurrez-aurreko harreman nazional bat saretu behar. Horrelakorik ez dugu, eta benetan elkarren arteko ezagutza, elkarlana, auzolana, komunitatea bideratu nahi badugu, lehenengo elkarrekin egotera, lan egitera, jolastera eramango gaituen aurrez-aurreko harreman sare nazionala osatu behar dugu.**

**Aurten Kilometroak jaitik proposatu den ERRONKA topaketa nazionala bezalako ideiak bultzatu behar ditugu. Aurten ere konturatu garen bezala, ez baita atera, ez da erraza, baina argi dago horrelako ekintzak bultzatu behar ditugula.**

**Aurrez-aurreko harreman sare nazionala, tokian tokikoa saretzetik, Euskal Herria saretzera:**

- Ikasturtean zeharreko ekintzak
- Eguna bera, jaia bera ere egokitu. Guneak xedeen, gaien arabekoak.
- Barrura eta kanpora begirako ekintzak
- Komunikatzeko bide berriak. Digitalizazioaren erabilera modu kritiko batean aztertu.

**Euskalgintzako eragile desberdinen arteko sare digitala osatzeak euskararen aldeko lan metaketa ekarriko luke.**

Baina zer nolakoa da euskalgintzako eragile ezberdinen arteko harremana? Tokian tokian egoerak ezberdinak topatzen ditugu eta batzuetan elkarlana handia den bitartean, beste batzuetan txikia

**II. WORLD COFFEE. 2017 - OÑATI**  
**KILOMETROAK: jai eredu berri bat asmatzera goaz!**

da. Gure ikastoletatik ateratako ikasleak, orokorrean, euskararen aldeko lanean oso ekintzaileak dira.

Hori bai, orokorren, gero, euskalgintzan ari diren eragile desberdinek, bakoitzak bere aldarrikapen ekintza edo jaia antolatzen omen du, bakoitzak berea eta besteen parte hartze txikiarekin. Ekintza komunak ez omen dira antolatzen eta elkarrekin gauza komunak antolatzeko arazoak omen daude. **Xede berdinak aldarrikatzeko, elkarrekin bideraturiko ekintzak bultzatu beharra dagoela aipatu da, eta honetarako, digitalizazioa baino aurrez-aurreko harremana indartu beharra dagoela, euskararen komunitatea bultzatu. Digitalizazioa, tresna lagungarri gisa ikusten da bide honetan, baina esan bezala, aurrez-aurreko harremana da gakoa.**

Digitalizazioarekiko ipar eta hego EHan zer nolako harreman desberdina dugun aipatu da. Sare sozial eta hauekiko den harremana erabat desberdina da. Horren zergatia ekonomiarekin lotzen da; Ipar EHa estatu Frantziarreko hegoaldean dago eta ekonomikoki estatuko leku pobreenetakoan kokatzen dela esan dezakegu. Hego EHa berriz, ekonomikoki estatu espainiarreko leku aberatsenetako batean kokatzen da. Horrek, harremanak modu desberdinetan bizitzea dakar eta hegoaldean sare sozial eta hauekiko den menpekotasuna adierazgarria da. Aurrez-aurrekoa indartu beharra dugu eta digitalizazioa modu kritikiko batean aztertu eta mugak jarri.

Gazteak aurrez-aurrekoan, komunikatzeko, ahoz komunikatzeko gaitasun geroz eta eskasagoa dute. **Aurrez-aurreko, ahozko harremana indartzeko egitasmoak bideratu behar ditugu; bertsolaritza, antzerkigintza....**

**Digitalizazioaren lanketa oso sakona da, hezkuntza komunitate osoarekin, luze eta ongi bideratu beharrekoa, hezkuntza prozesuaren barruan eta ez jai eredu baten lanketan. Ikastoletan lantzeaz gain, familian ere landu beharra dugu, gizarteko arazo edo erronka bihurtzen ari baita. Gizartea eraldatzen ari da.**

**Belaunaldi desberdinen arteko harremana indartu beharra dugu eta horretarako agian, digitalizazioa tresna interesgarria izan daiteke. Aurrez-aurreko harremanak izan behar du oinarri, denak errespetatuak sentitu behar dute eta aurrez-aurrekoak eta digitalizazioak sortzen duena elkarrekin bizi eta konpartitu.**

Erabilerari dagokionez, esan, digitalizazioa HHko etapan, umetan orduan eta gehiago sartzen ari dela, ari garea eta hau arazo handi bat da. Umeen arteko harremana asko aldatzen ari da eta asko aldatuko du honek. Aurrez-aurreko harremanari eragin handia egiten dio honek guztiak.

**Jaian bertan eta urte osoan zehar, umeak, familiak eta batez ere gazteak harremantzeko, aurrez-aurreko harremanak izateko, guneak sortu behar ditugu**

**Aurrez-aurreko harremana indartzeko baliabideak jarri, tokian tokitik Euskal Herrira. Bizipenak izan tokian bertan, Euskal Herriko txoko desberdinetan, herri desberdinetan ikasleen arteko aurrez-aurrekoak bideratuz. Digitalizazioa biltegia, artxiboa, toki bakoitzak besteei duen musikaren, bideoen .... Berri emateko erabili.**

**Teknologia, sare sozialak, behin egindako, osatutako harremanak, aurrez-aurreko harremanak, bizi izandakoaren ondoren kontakturako tresna gisa ulertu eta erabili behar dira**

Teknologia berrien inguruan ditugun beldurrak guregan asko eragiten dute eta horrek benetako azterketa serio eta kritikoa egiteko eragozpenak sortzen dizkigu.

**Adituen parte hartzea beharrezkoa da lanketa kritikoa eta sakon hau egin ahal izateko, bai teknologia berrietan adituak diren pertsonen parte hartzea, baina batez ere pedagogian, osasunean .... adituak direnena.**

**Harreman digitala "errazagoa", hotzagoa da. Edozer esan daiteke eta esaten da korreo elektronikoaren, sare sozialen, Whatsapp .... bitartez. Baina "benetako" harremana aurrez-aurrekoa da, harremanaren erdigunean gorputza bera jartzen baitugu, gorputza bere osotasunean.**



**II. WORLD COFFEE. 2017 - OÑATI**  
**KILOMETROAK: jai eredu berri bat asmatzera goaz!**

Digitalizazioak harremanen banalizazioa ekarri du. Egun, momentua bizi baino, orokorrean “zer pozik bizi garen” adierazten edo saltzen gabilta momentu oro sare sozialen eta Whatsapparen bidez.

Sare sozialen bidez gure bizitza saltzen ari gara, argazkiak han eta hemen zintzilikatuz, batean eta bestean non gauden eta zer egiten ari garen adieraziz. Eta jaietan ere berdina egiten da, jaiaz eta ingurukoekin gozatu baino, askotan hau eta bestea grabatu, argazkiak atera... ibiltzen gara eta asko, hau guztia, sare sozialetan konpartituz.

**Jaiak urtean zehar eta egunean bertan antolatutako ekintzetan parte hartzea, mugimendua, elkar-harremana bideratuko balu, hau guztia, gutxituko litzateke, hau da, momentua gehiago biziko genuke eta digitalizazioarekiko dugun menpekotasuna gutxituko litzateke.**

Gaiaren sarrera gisa planteatu den testua oso gogorra iruditu zaionik izan da. Guk, gure jaietan bideratu dugu marken, multinazionalen, teknologia berrien.... parte hartzea eta orain gaia horrela planteatzea gogorra da.

Euskararen erabilerak arduraturik, agian, bideratu beharrekoa, denok ditugun telefono mugikorrak (gailuak) zein mugikor horietako programak euskaraz izatea da, hori horrela izan dadin lan egin beharko litzateke.

**Komunitatea, komunitate euskalduna osatu nahi badugu, aurrez-aurreko harremana, aurrez-aurreko harremana euskaraz da bultzatu beharrekoa; bizipenak, emozioak, interesak, motibazioa.....Norberarengandik taldera eta taldetik norberarengana.**

**Euskal komunitatea, komunitatea diogunean, askotan komunitate nazionalari buruz ari garela ematen du, baina hau bideratu aurretik, ikastolan bertan, herrian bertan zer komunitate mota osatzen dugun aztertu behar dugu. Aurrena tokian tokiko komunitatea sortu behar da eta tokian-tokitik Euskal Herriko komunitaterako bidea egin. Bide hau ezinbestekoa da eta honetarako ikastolak eurak, ikastola osatzen duten estamentu**

**desberdinak (ikasleak barne), Jai guztiak eta EHI bera norabide horretan jarri behar dugu.**

**Arazoa ez da digitalizazioa, alkohola ez den bezala. Arazoa jendarte honetan gure buruarekin, besteekin eta izadiarekin sortzen ari garen harremana da. Gure denbora nola bizi dugun, besteekiko sortzen ari garen harremana, objektu edo tresna batzuei ematen ari garen balioa, naturatik zenbat urruntzen ari garen. Aztertu beharrekoa, oso modu kritikoan, digitalizazioak hemen guztian zer eragin duen da.**



**Aisialdi hezitzailea izateko bermatu behar diren irizpideak. **Kilometroak, kontsumoa baino haratago.****

Aisialdian ere garatu behar den balore hezitzaile garrantzitsua ERRESPETUA da. ERRESPETUA bost hertzetako poliedroa da:

Errespetua norbere buruarekin (osasun integrala, kontsumoa, Kultura-heziketa,...)

Errespetua aldamenekoarekin (aniztasuna, generoa, adinak, ...)

Errespetua ingurugiroarekin (Amalurra)

Errespetua komunitatearekin

Errespetua kulturarekin

Aisialdiak SORMENERAKO oinarritzko orubea izan behar du. Horretarako ziurgabetasuna aberasgarria eta hezitzailea den kalitatea da.

Ikuspuntu hezitzaile hauen arabera, egin dezagun Kilometroak jaiaren inguruko hausnarketa kritikoa eta has gaitzen irudikatzen bide hezitzailea bermatzeko jai eredu berria.

Haserako testu hau oinarri hartuta eztabaidatu genuen gure lan taldean. Lan talde guztiekin modu berdinean hasi genuen dinamika. "Zer datorkigu burura aisialdia hitza entzuten dugunean?" galdera guztiei bota zitzaion, bi hitzetan taldeko kide bakoitzak burura zetorkiona bota zezan. Ideia asko atera ziren eta talde guztietan ideia berdinak errepikatzen joan ziren. Oso kasu gutxietan azaldu zen aisialdiaren funtzio hezitzailea. Eta horretaz baliatu zen eztabaidan sartzeko. Hortik tiraka, aisialdia eta kontsumoaz hitz egiten hasi zen.

Aisialdia kontsumitzen dugun zerbait dela azpimarratu zen. Eskuarteetan dauzkagun eskaintza desberdinen artean aukeratzeko dugu, bideratutako aisialdi bat bizi dugu. Eta kontsumoaz ari garenean ez dugu Kilometroetako txosnan kontsumitzen dugunaz hitz egiten, eskaintzen zaizkigun ikuskizun eta jardueren kontsumoaz baizik.

Aisialdia denbora librearekin lotzen dugu eta denbora hori programatua izan behar dugu. Oso era antolatuan ulertzen dugu. Honek estresa ere sortzen digula aipatu zen. Askok Kilometroak jaia modu estresagarrian bizi dute, kontsumitzeko duten eskaintza anitza kudeatzeko zailtasunekin (Adib.: seme-alaben adin desberdintasunak gune desberdinetan une berean egoteak eskatzen die,...).

Erronkaren inguruan ere eztabaida sortu zen, ez zen Erronka bera zalantzan jarri, baino aisialdiaren balio hezitzaileaz ari garenez, Erronkak berak sustatzen dituen hainbat balorek zalantza sortu zuten. Lehiakortasuna, neurri batean, ez zen gaizki ikusi, baino gehiegizkoa denean ez zen modu positiboan baloratu. Bestetik, ixil uneak sortu ziren egungo Erronka eremuan gurpildun aulkian dagoen haur/gazte batek parte hartu dezakeen galdetu zenean. Horrek hausnarketa egitea beharrezkoa dela ondorioztatzea eraman gintuen. Bestelako probak ere planteatu beharko lirarteke.

Aisialdiaz eta sormenaz ere hitz egin zen. Lehenago aipatu dugun bezala, programatutako aisialdia da kontsumitzen duguna eta sormenerako tarterik ez diogu uzten gure aisialdiari. Sormena bera aisialdiaren oinarritzko orubea izan beharko luke.

**Aipatu ziren hainbat kontu:**

- Aisialdia lasai eta nahi duzuna egiteko denbora.
- Aisialdia harremanak lantzeko.
- Aisialdia kirola egiteko.
- Faltan botatzen dugu garai bateko aisialdi xumea.

**II. WORLD COFFEE. 2017 - OÑATI**  
**KILOMETROAK: jai eredu berri bat asmatzera goaz!**

- Askotan ez dugu oso argi ze helburu duen aisialdiak, hau da, zertarako egiten dugu egiten dugun guztia?
- Aisialdia ez da umeena bakarrik, guztion aisialdia aztertu beharko genuke. Gure denboran zer egin erabakitzen dugu?
- Aisialdia oso era antolatuan ulertzen dugu. “Aspertzeko denborarik gabe”.
- Garai batean naturarekin harreman handiagoa genuen.
- Gure aisialdia eskaintzen dizkiguten aukeren artean kontsumitzen dugu.
- Kilometroak jaia eskaintzen digutenaren artean kontsumitzeko baliatzen dugu, estresagarria izaten da.
- Kilometroak jaia gunetan banatua dago, adin tarteka antolatua, beste jende batekin harremantzea zailtzen du.
- Belaunaldien arteko interakziorako gunea ondo ikusiko litzateke, baina zaila ikusten dute.
- Kilometrotan, gaur egun, eskaintza hezitzaileak badaudela uste da.
- Jaiarekin zer transmititu nahi dugun erabaki behar dugu. Transmisioan akats bat eman da. Mezu argi bat zabaltzeko arazoak dauzkagu.
- Kilometroak bezalako ekimen bat gure komunitateari zuzendu beharko litzaioke.
- Epe luzerako helburuak markatu behar dira. Jaiak ez du zertan helburu ekonomikoa izan behar. Beste helburu batzuk dauzka. Ikastola guztien arteko antolaketa izan beharko luke. Ikastolen Jaia.
- Erronkan lehia puntua ez da kendu behar, baina kooperatiboa izan beharko luke eta ez soilik lehiakorra. Bukaera gizarteari zerbait transmititzeko erabili beharko litzateke.
- Programaziorik gabeko festa ereduak badaude. Adib: Musika parkean.
- Aisialdia programatua ez bada, zaila da hezitzailea izatea.

## **Kilometroak jaia, aisialdia, eta gure komunitate kulturala**

Jolas eta jokoekin egiten dugun azterketaren haria jarraituz, aisialdiak ere badu bere barne logika eta honako lau irizpide unibertsal hauen arabera azter daiteke: espazioarekin dugun lotura (natura, urbanoa), denborarekiko dugun pertzepzioa (egutegia, inauteriak, gabonak, ...), pertsonen artean dugun harremana (hika, zuka,...) eta objektu edota tresnekin egiten dugun erabilera (lurra, zura, elurra, ...).

Kultura transmisioa da. Horren arabera gure galdera: aisialdiak kulturaren transmisiorako esparrua izan behar du? Horrela bada, zein da bere curriculum? Zeinek eta nola osatu behar du?

Jaia aisialdiaren barruan kokatzen den jarduera unibertsala da. Hala ere, kultura bakoitzak bere izaera, bere nortasuna ematen dizkio jaiari. Zilegia al da, Euskal Herrian "Euskal jaiak" antolatzea? Zer da euskal kulturaren murgilduta dagoen jai bat? Saia gaitzen zehazten Euskal Herrian Euskal Kulturarekin bat egiten duen jai bat zer den...

Jaia gozamenarekin lotzen da. Dibertitzea norbera bere esperientziatik, hainbat emozio piztuz, antzematen duen sentimendua. Pertzepzio hori komunitate kultural baten partaide garelako eta horrekin erakusten dugun engeinamenduan oinarritzen da.

Euskararen erabilera jaia berak islatzen duen giroaren ondorioa izan behar du, edo jaia benetan euskal giroan gauzatzeko derrigorrean euskararen erabilera bermatu behar da?

Gaur egun Kilometroak jaiak zertan indartzen du euskal kultura? Euskal kulturaren adierazpena soilik emankizunetan ez oinarritzea erabakitzen bada, zein da alternatiba?

Zer da kultura?, Zer da Euskal kultura?, ... Kultura maiz erabiltzen dugun kontzeptua da, baina ez dago hain argi denok gauza bera ulertzen dugun. Kultura tradizioa da?, Kultura jakinduria da?, Kultura sormena da?, ... Galdera hauen haritik, hamaika zalantza sortzen zaizkigu Kilometroak jaiaren inguruan. Kilometroak Euskal kultura eta Euskara sustatzeko jaia dela inork ez du zalantzan jartzen, baina sustapen hori egiteko erabiltzen ditugun bideak eta, beraz, bide horietatik jasotzen dugun emaitzak zer pentsa eman beharko liguke.

Euskal kultura herri eta nazioa den komunitate bati lotzen da. Kilometroak-ek bere historian Euskal kultura sustatzeko anbizioa izan du, eta frankismotik atera berria zen Euskal jendartea Kilometroak bezalako ekimenen gose zegoen. Horregatik Ikastolen ahoan beti honako esaldi hau egon da: Ikastolak, Herriatik elkartasunez jasotzen duena, herriari kulturarekin itzultzen dio. Gaur egun Ikastolak herriari kultura itzultzen dion pertzepzio hori oso higitua egoteaz gain, Ikastolak antolatzen duena Ikastolarentzat dela pentsatzen da, beraz, Kilometroak Ikastola aberasteko jai bat delaren pertzepzioa dago. Egoera sintomatiko hau aldatzeko, ezinbestean, Euskal Herriko euskalgintzan aritzen diren beste eragileekin batera, Euskal kultura nola sustatu eta horretarako Kilometroak jaiari, Ikastolen marka galdu gabe, zer erabilpena eman ahal zaion aztertu beharko litzateke.

Adibide gisa, XXI. mendearen lehenengo hamarkadan Ikastolen Elkartetik landu zen Euskal Curriculum mahaira ekarri da. Urte horietan Ikastolen mugimendua euskalgintzaren esparruan aitzindaria izan zen eta beste eragileekin batera piztu zuen dinamika oso aberatsa izan zen. Horrelakoetan, zergatik Kilometroak jaia ez da dinamika horren isla soziala? Garai horretan Euskal Curriculum Ikastolen hormak baino haratago zihoan aldarrikapena izan zen eta maiz defenditzen den zerbitzu publikoaren kontzeptua hitzetatik ekintzetara pasa zen; herrigintzan eta euskalgintzan aritzeko indarra izan zuen. Misioa, beraz, oso argia zen. Zoritxarrez lan egiteko filosofia hura galtzen edota higitzen joan da, eta gaur egun ikastolak beste ikastetxeekin bereizten

**II. WORLD COFFEE. 2017 - OÑATI**  
**KILOMETROAK: jai eredu berri bat asmatzera goaz!**

duen eredu pedagogiko baten bila murgilduta daude. Euskal Curriculumaren “olatua” pasa zen, beste “olatu berria” sortzeko ez gara gai... Gure misioa bide beretik doa.

Bost lurraldeen arteko zatiketa gainditu beharra dago. Tokian tokiko berezitasunak bermatu behar dira, baina Euskal Kultura eta Euskara nazio baten bi ezaugarri garrantzitsuak direla denok batera aldarrikatzeko esparru berriak sortu behar dira. Ez dugu ahaztu behar Ikastolen mugimenduaren indar-gune garrantzitsu bat nazio mugimendua izatean datzala.

Kilometroak Euskal kultura sustatzeko tresna dela onartzen badugu, orduan xede horrek jaiaren misioarekin bat egin beharko du. Ez da oso urrun joan behar Ikastolaren esparruarekin lotu beharreko misioa asmatzeko: Euskal Herri osorako Hezkuntza sistema propioa.

Kilometroak jaiak sortutako eredia da, eta zalantzarik gabe gure jaiak ez da Euskal jendarteak eman dituen aldaketari doitu. Edo doitu bada, gure misioaren kalterako izan da. Aisialdia kudeatzeko irizpideak aldatzen joan dira eta gure jaiak oso urrun geratu da errealitate berri horretatik. Gure jaiak jendarteari doitu behar dela esaten dugunean, jendarteak ematen dituen aldaketak ongi ezagutzen, gure misioa jendartean modu eraginkorrago txertatzeko estrategia ezberdinak erabili beharko genituzke. Zoritxarrez, maiz kuantifikazioari gehiegizko garrantzia eman diogu, eta gure jaiak jendartean antzeman daitezkeen desbideratze bidetik joan da. Gure jaiaren doikuntza, beraz, gure misioa jendartera iristeko eraginkortasunean oinarritu behar da.

Kilometroak Ikastolen marka da. Nola indartu daitezke marka hori praktikaren bitartez? Ezin dugu marka marketing ikuspuntutik soilik landu, gure markak praktikoa izan behar du. Gure mugimendua kooperatibista izanik, bere markak kalitate hori nabarmenagoa azaldu beharko luke: kooperatibismoa ez soilik enpresagintzaren alorrean, auzolanaren praxiarekin bidetik ere. Kultura sustatzeko, sortzeko, egiteko, ... partizipazioa ezinbestekoa da. Partizipazioak benetakoa izan behar du, hau da, azken produktua garrantzitsua bada ere, garrantzitsuagoa da produktu hori erdiesteko erabiltzen den prozesu partehartzailea. Baditugu dagoeneko oso adibide interesgarriak bai gure jaiaren (Blai-blai) baita beste testuinguruetan ere (Donostiko piratak).

Hala ere, onartu behar da gure jai ereduak ez du gauza berriak egiteko aukera handirik ematen. Izan ere, gure jaiak oso eredu “itxia” da eta urtetik urtera bir ekoizti behar diren ezaugarri guztiak bete ondoren (EHI eta ikastolen artean batzuetan tirabirak), gauza berriak egiteko ia aukerarik ez da gelditzen. Autogestiorako esparrua, beraz, oso mugatua da.

Eta jaiaren ezaugarri garrantzitsuena dibertitzea bada, non eta nola garatzen da esparru dialektikoa? Jaiak kontsumitzeaz gain, gure jaietan ikasi al daitezke? Gaurko eredia ez dauka ezer ikusterik dinamika dialektikoarekin eta jendea erakartzearen xedearekin, kontsumo oinarrituriko jai bat antolatzen dugu. Urtez urte, gu geuk garatu dugun dinamika honek arazo handi batera eramanez gaitu: gustatzen ez zaigun eredia bir ekoizteko behartuta gaude. Jaiaren bitartez eman nahi dugun irudiak guztiz baldintzatzen gaitu eta bi zenbakieki, beste edozein datu kualitatiboak baino, izugarriko garrantzia ematen zaizkio: mozkin ekonomikoa batetik eta jaira hurbildu den jende kopuruari bestetik. Kilometroak jaiak oholzetatik Euskal kulturaren adierazpena izatetik, bertara hurbiltzen den jendearekin batera Euskal kultura lantzeko eta elikatzeko jai bat izatera eramanez behar dugu.

Ezin dugu gure kultura eta hizkuntzaren testuinguru politiko sozialaren perspektiba galdu. Gaur egun, oraindik ere, kultur inperialistak eta globalizatzaileak gordinki aritzen dira herri txikiak

**II. WORLD COFFEE. 2017 - OÑATI**  
**KILOMETROAK: jai eredu berri bat asmatzera goaz!**

asimilatzeko asmoz. Euskal Herrikoa ez da salbuespen bat eta gure kulturak eta hizkuntzak gutxitua izaten jarraitzen dutela ukalezina da. Lehenengo konstatazio hau onartuta, zuzena al da, hauen aldeko jaien antolaketa “makro” neurrikoa izatea? Jai handia egitea eta jai “makroa” antolatzea bereiztu behar dira. Jai handia egin daiteke bertakoa babestuz eta bermatuz, baina tamaina “makroa”-k gureak ez diren beste interesetarako orubea eskaintzen du, eta hori guk egiten badugu azkenean gure burua kontraesan batean jartzen dugu.

Juan Antonio Urbeltz, folklorista eta kultur gizonak, folklorea kultura batentzat ezinbestekoa dela esan ohi du, eta kultura herri baten “biltegi”-arekin irudikatzen bada, orduan folklorea biltegi horren “bitrina” edota erakusleihoa bihurtzen da. Metafora hori jarraituz, zein da gure jaiaren biltegia eta zein gure erakusleihoa?

Hala ere, jai handia izan arren, gure herrian dagoen aniztasunerako Ikastolen jaiak eszenatokia ere izan behar du. Azken urte hauetan gero eta gehiago areagotzen ari den etorkinen fenomenoak, arazoa bezala baino aukera gisa hartu beharko genuke.

**Etorkizunerako Jai eredu berri bat lantzeko jaso beharko liratekeen ezaugarriak:**

- Misia zehaztu: Euskal Herri osorako Hezkuntza sistema propioa
- Misia Euskalgintzaren mesedetarako izan
- Euskal jendarteak aisialdiaz duen pertzepzioa aztertu eta ezagutu
- Ikastolaren marka praktikarekin erakutsi
- Kooperatibismoak sortzen den jitea sustatu (auzolana)
- Bost lurraldeen Jaien arteko zatiketarekin amaitu eta dinamika bateratuak landu
- Jaiaren testuingurua esparru dialektikoa (ikasi) sustatu
- Aniztasuna aukera bezala kudeatu
- Jai handia antolatu arren, gure misioa ondo blindatuta

Oñatin, 2017ko martxoaren 25ean

## **ERANSKINA**

# **World Coffee II: Aisialdia eta auzolana**

Kilometroak Gipuzkoako Ikastolen jaia da. Jaiari eredu berri bat eskaintzeko asmoz, duela urtebete prozesu bat martxan jarri genuen eta martxoaren 25ean Txantxiku Ikastolan (Oñati) Aisialdia eta auzolana aztertzeko topagune bat antolatu genuen. Testuinguru horretarako, Gipuzkoako Ikastolen guztietara inkesta bat zabaldu genuen eta bertan irakurriko duzuen, bertatik jasotako ondorioak dira.

### **Inkestaren irakurketa eta emaitzak**

Ikastolen jaira hurbiltzen den pertsonen astialdian kokatzen da. Astialdi horretatik pertsonak egiten duten hautuaren arabera, beren aisialdia osatzen doa (denbora librearen programazioa), eta horrela, gure jaietara etortzeak aisialdi horren programazioaren barruan kokatzea ekartzen du. Hori dela eta, aisialdia zer den eta Ikastolen jaia antolatzeak zer aisialdi mota eskatzen duen aztertzea interesgarria iruditzen zaigu.

Nahiz eta jakina izan, ez dago inolako zalantzarik aisialdiaren ezaugarri garrantzitsuena ludikotasuna dela esateko (%58). Hala ere, ludikoa, gure eremu pedagogikoarekin bat eginez, hezitzailea ere izan behar dela azpimarratzen da.

Aisialdi ludikoak pertsonaren zorientasuna elikatzeke indarra izan beharko luke. Baina aisialdia norbanakoaren ezaugarri bat baino haratago doan fenomeno bat da: aisialdia testuinguru kultural batekin lotu beharra dago (%50), hau da, komunitate kultural batek aisialdian egiten diren jardueri ematen dion zentzua ulertzeko eta interpretatzeko hain zuzen ere.

Hala ere, aisialdia pertsonaren errealitatera eramaten badugu, aisialdia soberanoa dela esan behar da (%50). Aisialdi soberanoak, pertsonak bere astialdia programatzeko eta gauzatzeko kanpotik inolako tarte sartzerik gabekoa izatea eskatzen du. Horretarako, batetik, hainbat egituretatik printzipio hau bermatzeko sentsibilitatea erakutsi behar da (ikastoletatik etxeko lanak bidaltzeko bolumena, besteak beste) eta bestetik, heziketaren bitartez gure ikasleei tresnak eskaini behar dizkiegu bere astialdia hainbat baloreen arabera osatzeko, programatzeko.

Aisialdia esperientziarako ezinbesteko esparrua da eta pertsonaren garapenerako esperientziak aberasgarriak izan behar dira. Horretarako baloreak behar dira, eta balore horiek testuinguru sozial, kultural, artistiko, emozional, ... eragina izan behar dute. Aisialdiak eraikitzailea izan behar du. Esperimentazioaren bitartez, pertsona bir sortu (re-creo) egiten da. Esperientziak ez dira soilik bir ekoiztu behar, sormenaren bidez esperientziak egoera berriak ekoiztu behar dira ere.

Interesgarria iruditzen zaigun gai bat aztertzeko tarte bat hartu nahiko genuke. %50-ak Ikastolen jaia aisialdian kokatzen dela iristen duen bitartean, % 42-ak kontrakoa esaten du. Puntu hau argitu nahian, modu aleatorion inkesta honetan parte hartu duen hainbat pertsonari bere iritzia azaltzea eskatu diogu. Ikastolen jaia aisialdia baino askoz gehiago dela esaten denean, jaia misio zehatz bat aldarrikatzeko dela azpimarratu nahi da (misio politikoa ala hezitzailea). Dena den, honekin batera argitu beharreko beste zalantza bat ekartzen da: hainbatentzako aldarrikapenerako jitea ez da aisialdiarekin lotzen?

**II. WORLD COFFEE. 2017 - OÑATI**  
**KILOMETROAK: jai eredu berri bat asmatzera goaz!**

Ikastolen jaiari partizipazioa desbideratzen joan dela baieztatu daiteke. Partizipazio aktiboa eta pasiboaren arteko ezberdintasuna azpimarratzen da. Jendeari gure jaietara etortzeko eskatzen diogu, baina sortu dugun jai ereduaren arabera jaiari kontsumitzea besterik ez diogu eskaintzen. Jai ereduak ere jaiari noiz den zehazten du. Gazteek ez dute bertan parte hartzeko aukerarik izaten, ez bada, eredu kontsumitzaile baten testuinguruan. Aldaketak erradikala izan behar du eta gerturatu den jendeari jaiari ekintzetan inplikatu behar da. Inkesta erantzun zuen batek zioen bezala: *Orain mezua da. "etorri ikastolaren jaira, zure dirua behar dugu". Eta mezua izan behar du: "etorri ikastolaren jaira, zu beharrezkoa zara".*

Jai ereduak da, beraz, behin eta berriro ateratzen den gaia. Sormenerako ere jaiari ereduak guztiz baldintzatzen du. Izan ere, sormena partizipazioari ematen zaion aukeratik indartzen joaten da: gero eta partizipazio handiagoa (autogestioa maila gorena), orduan eta sormenerako aukera gehiago (eta alderantziz). Gauza berriak esperimentatzeko ez da beldurrik izan behar eta egoera horrek sorrarazten duen ziurgabetasuna zentzu positiboan hartu behar da.

Ikastolen aldeko jaiari benetako kapital soziala bilakatu dira. Boluntarioen lanak gaur egun auzolana (iraganeko nostalgiatik urrunduz) gaurkotzeko balio izan du eta gurea bezalako antolakundeek ekarpen aberasgarria egiten dio orokorrean jendarteari. Ikastola lankidetzan oinarritzen da (kooperatiba) eta errealitate hori da jendartean erakutsi behar dena. Gaur egun boluntarioen bidez egiten den lana barregarritzat hartzeko joera dago eta ikuspuntu merkantilistatik profesionala den orori seriotasuna ematen zaio. Ikastolen jaiari profesionalizazio bide hori hartuko duen unetik, jaiari amaiera data ziurtatuko zaio.

Esparru digitala guztiz sartu zaigu gure aisialdian. Horren erabilpenerako aldeko eta kontrako iritziak egon daitezke, baina erantzunetan, oraindik ere, zalantza asko antzematen da. "Ondo erabilia interesgarria izan daiteke..., gure mezua zabaltzeko balio badu..., partehartzea sustatzen badu..., ..." dira, besteak beste, jasotzen diren iritziak. Baina, hala ere, orokorrean behar garrantzitsua azpimarratzen da: IKT-rekin dagoen erabilpena desbideratzen doa eta heziketaren bitartez IKT-ren alde positiboa berreskuratu behar da. Kontuan hartzeko beste zalantza bat honako hau da: nahiz eta heziketa sakona eskaini, gai al gara multinazionalak erabiltzen dituzten medioen bitartez IKT erabiltzeko zabaltzen duten ideologiari aurre egiteko? Eta horrekin batera gure gazteak IKT-ez kontsumitzaile arduratsuak izateko beren aisialdi soberanoa babestea?

Aisialdia, beraz, kultura sustatzeko esparru garrantzitsua da. Euskal kulturaz zer ulertzen dugunaren arabera norabide bat ala bestea hartuko dugu. Ikastolok dugun nortasunaren arabera, aisialdiaren bitartez Euskal kultura sustatuko gure honako bideak landuz: ekintza kooperatibo eta komunikatiboak bultzatu, haurrak eta helduak bilduko dituzten elkarguneak sortu, onuradun pasiboak izatetik partaide aktiboak izatera sustatu, eskubide berdinak baina interes eta ezaugarri desberdinak ditugula ulertu, gozamina eta poztasuna sustatu, bertakoek eta bertarako diseinatutako ekimena izan, aniztasuna bermatu eta azalatu...



## *Euskal Herrian, orain eta hemen, Ikastoletatik garatu eta sustatu nahi den AISIALDIrako DEKALOGOIA*

- 1, Aisialdia gozamina sorrarazi behar digun unea da, sentipen hori gabe aisialdiak bere zentzu osoa galtzen du. Horretarako aisialdian egiten diren jarduera guztiak **LUDIKOAK** izan behar dira.*
- 2, Aisialdia pertsonak aukeratutako jarduera multzoa da. Bere hautuak interferentziarik ez izateko, aisialdia pertsonaren **DENBORA SOBERANOIA** dela bermatu behar da.*
- 3, Aisialdia testuinguru kultural batean kokatu beharra dago, eta bere baitan dauden adierazpen guztiek badute herri batek historian zehar garatu duen nortasun kolektiboaren aitortza. Ezaugarri honi **ETNOLUDIKOTASUNA** deitzen diogu.*
- 4, Aisialdia orain eta hemen bizitzen den esperientzia da. Gauzatzen diren jarduerak, beraz, guztiz **BIZIPEN-ESPERIENTZIAK** dira.*
- 5, Aisialdiak **AUZOLANA** garatzeko aukera eskaintzen du. Gauzak elkarrekin egiteak esperientzia pertsonala aberastu egiten du.*
- 6, Aisialdi horizontala sustatuz, **PARTIZIPAZIOA** guztion integrazioa bermatzen duen baldintza nagusia da.*
- 7, Aisialdia bir-ekoizpenerako zein ekoizpenerako esparrua da. Aisialdiaren esparruan gehiegizko planifikazioak ekoizpen berriak blokeatzeko indarra du. **SORMENA** aisialdian sustatzeko neurriko ekintza-eskaintza behar da.*
- 8, Aisialdiak pertsonen arteko **AURREZ-AURREKO** harremana lehenetsi behar du, begi kritikoz aztertu eta erabili behar da esparru digitala.*
- 9, Aisialdiak pertsona bere **OSOTASUN**ean garatzeko esparrua izan behar du. Osotasun haritik osasun kontzeptua indartu behar da.*
- 10, Aisialdia **ANIZTASUNA** onartzen eta sustatzen duen esparrua da. Aniztasuna edozein bizipen-esperientzia aberasteko ezinbesteko kalitatea da.*